



6.01

Kirola sustatzeko diru-laguntza: Norbanako laguntzak.

ZERTAN DATZA	Norbanako kirol jarduera burutzeko sortzen diren gastuei aurre egiteko ematen den diru-laguntza da, emakumeen kirolaren mesedetan.
NORK ESKA DEZAKE?	Jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten norbanako kirolariak edo bere legezko ordezkariak: <ul style="list-style-type: none"> - Eskaera aurkezten den unean, azken 5 urtetan eta etengabe, lurretan erroldatuta egotea. - Dagokion kirol federazioaren lizentzia izatea. - Lurralde esparru desberdinetan (nazioarte, estatua, erkidea, probintzia eta herria) kirol jarduerak burutzea.
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - Eskaera. (G-01 eredu) - NANA. - Dagokion Federazioak luzatutako ziurtagiria, federatutako pertsonaren izena, kategoria eta ekitaldi honetan egindako kirola zehaztuz. - Indarrean dagoen ekitaldian burutako edo burutzear dauden ekintzen eta lehiaketen planifikazioa edo programazioa, eta sortutako gastuen aurrekontu zehaztua. - Eskatzailearen kirol historia (emaitzak eta sailkapenak) dagokion Kirol Federazioak oniritzia ematen duena. - Hirugarrenen alta inprimakia edo aurkeztu izanaren aipamena. (03 eredu)
NON AURKEZTU BEHAR DA?	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren Arreta Zerbitzua: Astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:00etara. Helbidea: Bidebarrieta 5 E-mail: haz-sac@iurreta.eus Telefonoa: 94 620 12 00 - Ibarretxe Kultur Etxea: Astelehenetik ostiralera 15:00tik 20:00etara. Helbidea: Bidebarrieta 4 - Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutako lekuetako edozeinetan.
ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO	<p>Telefonoa: 94 621 53 72 Web: www.iurreta.eus E-mail: gizarte-ongizate@iurreta.eus</p>
PREZIOA	Udalak bere gain hartuko du kudeaketaren kostua.
EBAZTEKO EPEA	Gehienezko epea: 3 hilabete.



APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA	<ul style="list-style-type: none">- Burututako kirol jardueratik norbanako laguntzak emateko oinarri arautzaileak.- Diru-laguntzen Udal Ordenantza Orokorra.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
ESKAERAREN ONDORENGO PROZEDURA	<ul style="list-style-type: none">- Aurkeztutako dokumentazioa jaso, egiaztatu, erregistratu eta eskaneatu.- Balorazio Batzordeari bidali.- Dagokion txostena egin.- Gizarte Ongizate Batzordeko proposamena.- Eskiera ebatzi eta interesatuei jakinarazi.- Ogasun sailari igortzea ordaintzeko.
SAIL ARDURADUNA	Gizarte Ongizatea.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none">- Emakumeen kirola sustatuko da, emandako norbanako diru-laguntzak %50 gehituz.- Dokumentu guztietan eta egindako publizitate guztian Iurretako Udala, diru-laguntza jaso duten jardueretan sustatzaile gisa agertu behar da, armarría eta "Iurreta Eleizateko Udala" izen osoa atxikiz.- Oinarri Arautzaileen 11. artikuluekin bat etorritik, emandako diru-laguntza zuritu beharko da, hurrengo dokumentazioa aurkeztuz:<ul style="list-style-type: none">✓ Justifikazioa. (07 eredu)✓ Justifikazio memoria.✓ Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.✓ Justifikazio kontua, fakturen eta ordainketa ziurtagirien kopiekin batera. (08 eredu)✓ Helburu berberarekin beste erakunde batzuei eskatutako finantzazio iturrien eta/edo eskatutako diru-laguntzen zerrenda (emandakoak, ebazteko daudenak, e.a.). Aurkeztu ezean, eskatu ez direla ulertuko da.✓ Egindako publizitatearen ale bat.